

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko URTARRILA


## Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kate handietako salmentak %2,9 jaitsi dira 2024ko urtarrilean Euskal AEn

**Aurreko hilaren aldean, 2023ko abendua, salmentak %0,1 igo dira**

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoetan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %2,9 gutxitu dira 2024ko urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean.

2023ko abenduarekin alderatuta, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, prezio finkoko salmentak %0,1 igo dira urtarrilean.

### Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

*Elikaduraren* sektorean, prezio finkoko salmentak %0,2 hazi dira hilabete artean. *Gainerako produktuen* sektorean, aldiz, salmentak %0,2 jaitsi dira aurreko hilaren aldean.

Urte arteko terminoetan, 2024ko urtarrila eta 2023ko urtarrila, prezio finkoko salmenten bilakaera negatiboa izan da bai *Elikaduran*, %1,5eko jaitsiera izan baitu, bai *Gainerako produktuetan*, %5,1ekoa.

## Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2024

|                                                       | Prezio finkoak |         |                 |
|-------------------------------------------------------|----------------|---------|-----------------|
|                                                       | m / m-12       | m / m-1 | A (m) /A (m-12) |
| <b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b> |                |         |                 |
| Euskal AE                                             | -2,9           | 0,1     | -2,9            |
| Araba/Álava                                           | -2,5           | -0,6    | -2,5            |
| Bizkaia                                               | -3,4           | 0,0     | -3,4            |
| Gipuzkoa                                              | -2,1           | 0,5     | -2,1            |
| <b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>            |                |         |                 |
| Janariak                                              | -1,5           | 0,2     | -1,5            |
| Gainerako produktuak                                  | -5,1           | -0,2    | -5,1            |
| <b>LANGILERIA-INDIZEA</b>                             |                |         |                 |
| Euskal AE                                             | 1,7            | 0,1     | 1,7             |

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Otsailaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza Indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko urtarrilean, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek urte arteko emaitza negatiboak izan dituzte hiru lurraldeetan. Hala, Bizkaiko salmentak, prezio finkoetan eta lan-egutegi homogeneoan, %3,4 jaitsi dira, Araban %2,5 eta Gipuzkoan %2,1.

2023ko abenduaren aldean, hau da, hilabete arteko terminoetan, salmentak %0,5 igo dira Gipuzkoan, finko mantendu dira Bizkaian eta %0,6 jaitsi dira Araban.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langileen kopurua %1,7 igo da 2023ko urtarriaren aldean. Hil artean, langileen indizeak %0,1 egin du gora.

### INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiko efektuak zuzenduta dituzten serieetatik abiatuta kalkulatzeko dira, eta hilabete artekoak urtaroen eragina kendutakoetatik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea **%100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

#### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62